



BARREN

TOKIKOM

“Abade izatea ez da mundutik ihes egitea”

Angel Bazterretxea, abadea

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ARROZTEGIAK



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimara@hotmail.com



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Aroztegia · Carpinteria



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA



Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238




Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17. AC beheka
Tel.: 943 202 208 Herriko Enparantza 5
Faxa: 943 205 045 Tel.: 943 033 235
20850 EIBAR 20850 MENDARO



(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA



Urasandi, 22 beheka - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurarekin ere lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 beheka
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA



Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Herriko Enparantza, 10 beheka
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

TELLABIDE

ITURGINTZA



Azpigoeta 7 beheka - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzun, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com

ELOIBAR

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 233
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura



ABEL ARRIAGA



“Gaur egungo kontsumoari eustekotan, gurea bezalako 1,6 planeta beharko genituzke”

Defizit hitza entzuten dugun bakoitzean, enpresen eta estatuen kanpo zorrak datorkiguz burura gehienoi. Izan ere, *Printze txikia* liburuko pertsonaiak bezala, gu ere gauza 'garrantzitsuetaz' kezkatu ohi gara: ekonomiaz eta politikaz, besteak beste. Baina bada beste defizit mota bat ere, hain 'garrantzitsutzat' ez daukaguna: ekologikoa. Aurten, inoiz baino gutxiago behar izan dugu, zazpi hilabete eta 8 egun, gure planetak iraunkortasunez sor ditzakeen baliabide naturalak bukatzeko. Hortik aurrerako kontsumoak baliabideen gehiegizko ustiaketa eta atmosferan karbonoa pilatzea dakar. Gaur egungo kontsumoari eustekotan, gurea bezalako 1,6 planeta beharko genituzke, WWF erakundearen arabera.

Jurgi Arrutiri aspaldi irakurri nion, *A nos amis* liburuko pasarte hau: "Ezker politikoari iraultza zer den galdetuz gero, 'giza-

kia erdigunean jartzea' dela erantzungo du. Ez da ohartzen, mundua nazkatuta dagoela gizakiaz... Gizakiari gerra adierazpen bat egitean datza iraultza, lurra jarritz erdigunean". Hain idealizatuta daukagun 'ongizate' estatuak ere, gu jartzen gaitu guztiaren erdi-erdian, naturaren kaltetan.

Zentzu honetan, aita santuaren *Laudato si* entziklikak ere, gobernuz kanpoko erakundeek askotan salatu dutena berresten du: natura zaindu ezean, pobreen eta aberatsen arteko aldea gero eta handiagoa izango da, hau da, pobreak gero eta pobreak eta aberatsak gero eta aberatsago izango dira.

Gizakia vs Lurra. Ongizatea vs Ekologia. Bada bien arteko harreman orekatua posible dela sinisten duenik. Inkoherentzian eroso gauden bitartean, nik zalantza asko ditut. Eta zuk, Andoitz, posible ikusten al duzu oreka?



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



“Neu ere oso eroso nabil (...). Zeinek esango ditt oin gutxiago kontsumitu bihar dotela?”

Abel, askotan gizakixa esaten dogunian ekonomia esatia nahi dogula iruditzen jata. Zuk diozun bezela, gizakixa erdigunian jartziari buruz ari gerdunian, zer esan nahi dogu?

Ni neu ere oso eroso nabil nere eguneroko errutinan: autua, berogaillua, plastikotan ontziraturako jatekuak, behin bakarrik erabiltzeko diran haur-pardelak... Zeinek esango ditt oin gutxiago kontsumitu bihar dotela ikusteko horren zaila dan ekologia horren alde, kontsumua=zoriontasuna danielan kapitalismo honen oinarri? Ni ez naiz ipar-poluan bizi, ez dittut izotz-kapak urtzen ikusten eta ez naiz txikitzen ari dan glaziare baten onduan bizi. Zer demontre! Temperatura igotzia ez al da lagungarri izango negua erosuago pasatzeko? Udan ere egun gehixagotan jua ahal izango naiz hondartzara, epel-

epel. Gaur egungo baliabide fosillak agortuta ere, fusio nuklearra ordurako martxan egongo da.

Baleike hau dana esajerazio bat izatia, baina ez dago gure eguneroko pentsamenduetatik oso urruti. Erabakixak hartzen doguzenian ekologia kontuan hartzen dogu, erosotasunari kalterik egitten ez dion bittartian. Nolatan ez dogu gizakixa erdigunian ipiñiko, erabakixa geuk hartzen badogu? Ez al da hori gure bizitzako oinarrietako bat? Lehenengo nere burua, eta gero, biharbada, bestiak.

Biharbada ez ligukete erabakirik hartzen laga biharko. Dekretuz danok bizikletan lanera! *kar kar* Ez pentsa zoriontsuago izango ez giñanik. TED Talks-eko Dan Gilberten bidixua gomen-dau nahi dizut: zoriontasuna ez dago aukera zabalak izatian, daukagun hori onartzian baizik.

IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar 1936 taldekoa



Ahaztuen oroimena

alde batetik, eta Soraluzen bestetik, ia-ia Karakateko maldan gora. Erresistentzia oraindik sortzen ari zen, eta miliziano eta gudariak, mendiz mendi atzeraka, faxismo beltz eta txapel gorriari ezin eutsirik.

*“80 urte eta gero,
inor ez da
egindakoagatik
epaitua izan”*

Joxek 15 urte zituen, nerabea, lanean hasi berri, etorkizuna aurrez aurre, kirola zaletasunez. Tropa faxistak gero eta hurbilago zetozela entzuten zuen lagunartean, familian, egunkarietan. Gerlarren burrunba gero eta handiagoa zen, eta aldizka, milizianoez betetako kamioiak eta jendez betetako trenak ikusten zituen Eibar alderantz.

Bazetozen, bazetozen, eta hasieran arduratzen hasi zen, ondoren beldurtzen. Zurrumurrak gero eta ozenagoak, herritar gehienak gero eta urduriago. Hilaren 20an Azkoitian sartu ziren errebeldeak,

Joxeren aita, langilea, armagina, sozialista, izuturik zegoen. Semea hartu, eta Markina aldera ihes egin zuen, beste elgoibartar askorekin batera. Ama utzi zuten etxean, aittita zaintzen, berriro ere, azkar-azkar elkar ikusiko zutelakoan, eta Joxek, azken begiradan malkoak irten behar zitzaizkiola sumatzean, aurrera so, eta aitari jarraiki, Bizkaia aldera jo zuen.

Hiru urtetan handik hona ibili ondoren,

azkenean, Padroneko kontzentrazio-esparruan urte erdi eman eta gero, Joxe herrira itzuli zen; familia desaginda, etorkizuna nazionalkatolizismoaren menpe, guardia zibilen kontrolpean, amets guztiak apurtuta.

Kontakizun hau elgoibartar askok pairatu zutenaren adibidea besterik ez da. 600 herritarrek gutxienez, antzerako egoerak, edo gaiztoagoak jasan behar izan zituzten. Beste askok, isilean eta ezintasunez, errealitate gordinera egokitu behar izan zuen, eta beste batzuk, inposatutakoa irentsi zuten, sistema ez-legitimo hartan erosotasunez jardutera iritsi arte.

80 urte eta gero, inor ez da egindakoagatik epaitua izan. Estatu kolpea, ondorengo gerla, eta geroagoko jendarte-zapalketagatik inor ezin da Espainian epaitua izan.

Demagun, istorio honetako Joxe aste honetan hil zaigula, 95 urterekin. Gizon xamurra, kirolari aparta, denon ezaguna. Hau guztia jasandakoa. Ahaztuen adibide. Gure oroimenean zaude.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkalfun Leharren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Diruzorroa galdu nuen, eta zorionez, agertu da. Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiot Victoriari.

K.G.

► OSABAREN OROIMENEZ (I)

Osaba zena, osaba Jose...
abizena Gurrutxaga.
Bere aitta Ramon lezora etorri...
eta uzten zigun bai, guri paga.

Errepublikano... aitta abertzale,
maite ninduen, noski bai!
Halako Ramon mundial batetik
sortu zen Jose osaba.

Hainbeste parrak,
hainbeste une on...
osabakin egindakuk.
Maite nuen, eta maite dut...
betirako nire barnean.
Agur eta ohore osaba Jose...
Inoiz ahaztu ezingo dudun...

Larai, larai, larai, larai...
zure alai eta laztantasanak.

Iloba Joxanek

► OHARRA

Azaroaren 1eko jaizubia dela-eta, datorren barixakuan ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo alea azaroaren 11n jasoko duzue.

BARREN

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, urriak 30, **03:00etan, ordubetez atzeratu beharko** da ordularia.



ARBEOA
INMOBILIARIA

SAN ROKE 16

- PROMOZIO BERRIA -

125.000 €
-tik gora



1 eta 2 logelatako 3 etxebizitza (1 salduta)

Kiroldegiaren parean eta erdigunetik bi pausotara

Neurrira egiteko aukera lehen mailako materialak erabilita



688 72 41 22

info@inmoarbela.com

San Frantzisko 34, Elgoibar

Anton Zubiaurre mendaroarrak aitortu du Sprilurreko goi kargudunak espiatu zituela

Patxi Lopez lehendakaria izan zen garaian SPRIko goi kargudun baten posta elektronikoa sartu eta espioitza informatikoa egin izana onartu du Anton Zubiaurrek. Industria espiotza leporatuta atxilotu zuten Anton Zubiaurre mendaroarra 2010eko ekainean eta astelehenen hasi zen bere aurkako epaiketa. Zubiaurrek bideokonferentzia bidez deklaratu zuen, mediku arrazoiak tarteko. Fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatu du Mendaroko alkate ohiarentzat.



Sebas Etxaniz preso elgoibartarraren aldeko mozioa aurkeztuko du Elgoibarko Sarek Udalaren Osoko Bilkuran

Elgoibarko Sarek "giza eskubideekin duen konpromisoa" berretsi nahi du, eta haien iritziz, giza arau eta eskubide horiek diren bezalaxe onartu behar dira, edozein delarik ere aukera, egoera edo interes politikoa. Gogorarazi dute, espetxeratuta dauden pertsonen eskubideak ere bermatu behar direla, eta 70 urtetik gorako pertsonak espetxean edukitzea "zigor krudela" dela gaineratu dute. Espainiako Zigor Kodeak bere 92. artikuluan dio 70 urte betetzen dituzten presoek baldintzapeko askatasuna lor dezaketela, eta Sebas Etxanizek 73 urte ditu. Egoera hori salatzeko, hiru eskabide biltzen dituen mozioa aurkeztuko dute Elgoibarko Udalaren Osoko Bilkuran: 1.- Elgoibarko Udalak, gizatasun arrazoiak direla eta, gure herriko semea eta 73 urte dituen Sebas Etxaniz Alkorta preso askatzea eskatzen du. 2.- Elgoibarko Udalak, kaleratzea gertatu bitartean, jatorrizko hurbileko espetxe batera ekartzea eskatzen du, bere familia eta lagunengandik ahalik eta hurbilen. 3.- Elgoibarko Udalak akordio hau Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralari igorriko dio, beraren babes eta jurisdikzio pean baitago egun Sebas. Horrez gain, datozen astetan sinaduren bilketa-kanpaina bat hasiko gara herrian Sebasen askatasuna eskatzeko.

Udazkenari ongi-etorria egin zieten zapatuan etxeko txikienek, Atxutxiamaikarekin

Udazken festa antolatu zuen Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak zapatuak, eta hainbat gaztetxo bildu ziren Kalegoen plazan, udazkenari ongi-etorria emateko. Sukalde txokoan sagarrezko pintxo morunoak prestatu zituzten, eta eskulanetan ere hainbat lan egin zituzten, hostoekin. Horrez gain, hostoz betetako pizkina bat jarri zuten plazan bertan, umeez hara barrura jauzi egiteko. Barre, irri eta algararik ez zen falta izan Udazken Festan.



Bi udal langilek jasandako erasoak salatzeko elkarretaratzea egin du Udalak



Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, bi udal langileri eraso egin zien bizilagun batek astelehenean, udaletxean lanean ari zirela. “Elgoibarko Udalak erabateko gaitzespena erakusten du eta erasoak guztiz kondenatzen ditu”, esan du Elgoibarko Udalak prentsa ohar bidez. Elgoibarko Udalak kaltetutako langileei “guztizko babesa eta laguntasuna” agertu die eta ahalik eta esan du espero duela gertatutakoa ahalik eta lasterren argitzea. Eraso hori salatzeko elkarretaratzea egin zuten eguaztenean.

‘Nafarroa hegoaldeko uzta euskarari puzka’ kanpaina abiatu du Errigorak

Nafarroa hegoaldean haur eta helduen euskalduntzeak aurrera egin dezan, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina jarri du martxan aurten ere Errigorak, Zazpiak bat, Sor-tzen, AEK eta Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Batetik, Nafarroa hegoaldean haur eta helduen euskalduntzeak aurrera egin dezan nahi dute, eta, bestetik, amets berriak bete nahi dituzte: euskara kalera atera eta zonalde zigortu hori lurralde euskaldun bihurtu nahi dute. Horretarako herritarren laguntza behar dute: Nafarroako hegoaldeko hogeiki ekoizle bakoitzeko gehiagok ekoiztutako uztaekin bi otar jarri dituzte salgai, beltza eta zuria; eta nahi duenak, azaroaren 8ra arte izango du otarrak erosteko aukera. Otar bakoitzak 50 euro balio ditu. Informazio gehiagorako edo otarrak eskatzeko www.errigorak.eus helbidean sartu daiteke.



Saski zuria



Saski beltza

Jose Gurrutxaga hil da



Jose Gurrutxaga atleta elgoibartarra hil zen domekan, 95 urte zituela. Atleta eredugarria izan zen Jose Gurrutxaga. Elgoibar Ikastolak ere halaxe zela uste zuten eta hartatik antolatzen dute urtero bere omenez Jose Gurrutxaga krosa. Korrikalari beterranoak txapelketa askotan hartu zuten parte Euskal Herrian, Espainian eta Europan zehar, eta makina bat errekor ondu eta hainbat domina lortu zituen bere korrikalari ibilbidean. 2007an, esaterako, Espainiako txapelketa izan zen beterranoen kategorian 100 eta 200 metroan. Adinean aurrera egin arren, egunero antxintxika egitera joateko ohiturari eutsi zion azken urteetara arte.

30.000 euroko saria banatuko du Gure Esku Dago-k

Gure Esku Dago ekimena finantzatzeko errifak saltzen dihardute taldeko kideek. 5 euroan erosi daitezke errifak. Sari nagusia 30.000 eurokoa izango da, eta mila euroko beste hamar sari ere zozketatuko dituzte. Urtarrilaren 16an egingo dute zozketa. Elgoibarren ondorengo lekuetan erosi daitezke errifak: Pitxintxu liburudenda, Ja-alai taberna, Larre ogiberri okindegia eta PSE-EE alderdiak Urazandin daukan tabernan. Horrez gain, Gure Esku Dago taldeko kideak ere arituko dira errifak saltzen kalean.

“Ahaztu bekatuak. Jaungoikoa ez da Elizak esan digun epaile zigortzailea”

▶ ANGEL BAZTERRETxea MENDAROKO ABADEA

Mendaro herriak berak dituen baino urte gehiagoan izan da Angel Bazterretxea (Mutriku, 1936) Mendaroko abade: 54 urte. Ezaguna dute herrian Don Angel, hamaika saltsatan ibilia delako, eliztarren nahiz eliztar ez direnen ondoan. Azaroaren 6an erretiroa hartuko du, “Altzolako parrokiari hasitako lanak bukatutakoan”, baina garbi laga nahi du bera ez doala inora, ez daukala Mendaro uzteko. Esker oneko hitzak ditu mendaroarrentzat eta kritiko agertu da bera parte den instituzioarekin, Eliza Katolikoarekin.

- AINARA ARGOITIA -


◆ Noiz iritsi zinen Mendarora? Zer topatu zenuen?

1962ko urriaren lehenengoan iritsi nintzen, 26 urterekin, Saturrarango abadetxetik mojen Garagartzako komentura, kapilau. Oso ondo hartu ninduten mojek eta izugarri ondo egon nintzen ni haiekin. Sasoi hartan hiru abade ginen hemen. Artean Mendaro ez zen herria. Administrazio bitan zatitutako herri langilea zen. Lana zen hemengo kultura.

◆ Zenbat aldatu diren kontuak. Orduan hiru abade eta gaur erretirorik hartu ezinda, abaderik ez dagoelako!

Mutrikun zazpi-edo laga nituen hona etorri nintzenean, Elgoibarren hamar bat baziren eta hogeitaka Eibarren. Orain, Mutrikun, Deban, Soraluzen, Elgoibarren abade bana dute, eta Mendaron ere bat, neuk laga arte, gero ez datorrelako besterik. Diakono bat hasiko da nire lekuan [Eliza Katolikoko hierarkiako behe-maila bat da diakonoa, apaizaren eta apezpikuaren azpian, liturgian lagundu eta sakramentu zenbait ere eman ditzakeena].

◆ Hain bizimodu txarra daukazue abadeok gaur inor ez sartzeko abade?



Itxuraz bai [barrez]. Zentzurik gabekoa edo aldrebekoa edo... Gu seminarioan 500 lagun geunden Donostian, eta orain, bost daude. Krisi hori aspaldi etorri zen.

◆ Gogoetaren bat egingo zenuen horren inguruan, ala?

Asko esatea izango da beharbada, baina nik uste dut Elizak berak galdu

duela asko. Lehen, Elizak esaten zuena zen askorentzat lehenengo eta azkeneko hitza. Hori amaitu da.

◆ Ezin esan garai bateko sona onik duenik Elizak, ez, baina zuk zeuk zerbait egingo zenuen ondo, eliztarrek eta Elizarekin kritiko direnek ere estimatzen zaituztelako Mendaron.

Zuk uste? Bestera pentsatzen dutenak

ere izango dira. Erdi Arotik posmodernismo artekoko aldaketa bizitzea tokatu zaigu guri. Gu hezi gintuzten Elizak esaten zuenaren arabera, eta hori galdu da edo gutxienez, bere lekura joan da, eta hori gauza ona da. Abadeek eta maisuek zuten egia. Apenas zegoen beste kulturarik, eta gure ezjakinean, hala bizi ginen, beldur pean. Bizi ere ez ginen barren! Dena zen bekatua. Denok hezi gintuzten erregela beraren neurriari, bakoitzaren ezaugarriak eta gaitasunak kontuan hartu gabe. Pentsa zenbat talentu galdu zen. 1968ko Maiatzekoarekin hasi zen zabal-kundea, eta gero, telebista-eta lagundu digute ikusten munduan badirela gauza gehiago ere. Ohiturazkoa zen gure doktrina, eta batez ere, beste munduari lotutakoa. Hemengo bizitzak ez zuen horrenbesteko zentzurik, eta gero ibili behar izan gara horri buelta ematen. Nola ez du ba garrantziarik izango bizitza honek? Gerokoa etorriko da, etortzen baldin bada, baina egia bada jaungoikoa aita dela, hainbeste beldur ezingo diogu bada izan!

♦ **Besteei kontu hartzen ibiltze hori eta etengabe epaitzen ibiltzen hori oso da ba Elizarena. Ez duzu uste?**

Bai. Elizak erabili egin du infernuaren ideia, beldurraren teknika. Erabili balu sikiera mundu hobe bat eta justizia soziala bultzatzeko, bale, baina hamar egun bizi gara, geuk dauzkagun huts guztiekin, eta zer egingo dugu ba?. Garen bezalakoak gara, hala egin gaituztelako gainera!. Amaren sabeletik ez, amonaren amonarenetik ere jaso ditugu guk ezaugarriak, eta gizartean hezi gara. Hemen guztiz librea denik ez dago, borondatea bera ere prefabrikatuta daukagu-eta! Zeinek ez dauzka barruko grinak eta abarrak? Nola izango gara libre geure bizimodua antolatzeke ere gaitasunik ez badugu? Beraz nor gara gu inori kontu hartzeke libre ere ez baldin bada? Eta epaitzen hasita ere, irizpide beraren arabera epaitu behar ditugu denak? Nola epaituko ditugu denak berdin, nor bere motxila eraman behar izan badu bizkarrean sortzez bertatik?

♦ **Kritiko zara Elizarekin. Instituzio horren barruan eroso sentitu zara zu?**

Askotan ez. Orain ez hainbeste, baina Elizan obediencia, autoritatearekiko esaneko izatea, derrigorra zen. Aita santu, gotzai eta gainerako asko jaungoikoaren ordezkari ziren, eta haiena zen hitza; logikak, jakintzak eta zientziak ez zuten ezer balio. Baina gotzainak $2+2=5$ direla esaten duela eta men egin behar al da, zalantza ere egin gabe? Eta kontuz! Ez garelako, gainera, matematikaz ari. Autokritika gehiago egin beharko genuke, kritika konstruktiboa esaten dena.

“Entzun eta lagundu ahal duzun guztian, baina doktrina eman, nola bizi behar den agindu, hori ez”

♦ **Orduan obediencia hori komeni izan zaizunean bete duzu zuk?**

Behar zela uste izan dudanean. Nik beti esan dut: entzun eta lagundu ahal duzun guztian, baina doktrina eman, nola bizi behar den agindu... hori ez. Hartu kontuan hemen zenbat gatazka izan ditugun: gatazka politikoa, soziala... horiek denak ikusita seigarren mandamendua betearaztearekin itsutuko naiz ni?

♦ **Ez zaituzte entzuten.**

Zelibatuan bizi den abade batek nola ulertuko dizue zuei ezkonduoi ba? Eta nola ausartu daiteke, gainera, lekzioak ematera? Ez dakiena maisu? Are gehiago, epaile? Gainera, baldin ba gara guk uste dugun jaungoiko errukitsu horren ordezkari, norbaitek bekatua egin baldin badu ere, ez gero zigortu. Eta hori abadeok eta denok egin beharko genuke, gainera. Elizak urteetan erabili duen “harrokeri” hori nola ulertuko du ba jaungoikoak!

♦ **Hainbeste dira bekatuak...**

Hemen egin behar duguna da elkarri

lagundu, elkarri on egin, elkar ulertzen ahalegindu eta hortik aurrera bakoitzak egin dezala ahal duena, ahal duen ondoen eta inori minik egin gabe, nahita behintzat. Ahaztu bekatuak eta abarrak, nahikoa itsututa egon gara-eta bekatuen kontuarekin. Jaungoikoa ez da Elizak esan digun epaile zigortzaile hori. Izatekotan pertsona onak, borondate onekoak, garbiak eta jakintsuak dira gure jaungoikoaren irudikoak. Eta garbiak diodanean ez naiz seigarren mandamenduz ari. Garbia bihotza izan behar du animalia arrazoidunak, nahiz eta Elizak ez dion horri behar besteko garrantziarik eman, gorputza garbi mantendu nahi horrekin behar ez zituen lanak hartu dituelako. Zer jardun dugu esaten, seigarren mandamendua baldin bada gauzarik sakratuena bizitzan!. Nondik dator bestela bizitza?

♦ **Zeu zoazelako bestela laster zaituzte bota.**

Umeak ekartzen duenik ez baldin badago zer egin behar dugu, bada, hemen. Batetik zigorrarekin mehatxu egin, eta bestetik, umerik ez ekartzea naturaren kontrakoa dela esan?. Zertan ari gara,? Gustura galdetuko nieke nik gure gurasoei, 10-12 seme-alaba ekartzen zituztenei mundura, zergatik hartu zuten erabaki hura? Horretan orain ari gara gure onera etortzen. Orain, umeak ekartzen dituzte hala nahi edo ahal dutenek, eta mantentzeko beste. Erreza dute ba mundu honetan familiek! Eta gero, beste koadrila bat esan eta esan umeak ekarri egin behar direla, datozen denak gainera! Eta zeinek mantendu behar ditu, jaungoikoak? Sexualitateari buruz Elizak disparateak esan ditu. Jaungoikoak nola esango dizu ba ekarri itzazuz hamar ume denak goseak hil behar badira. Zer jaungoiko klase da hori? Lehenengo eta behin, duin bizi behar dugu, hemen, lurrean, eta ezin bagenitzake mantendu ekarriko ditugun denak bada ez ekarri. Eta gorputzak bere beharrak baditu, zer? Ba egin ezazu egoki ikusten duzun hori neurriak hartuta.

♦ **Ulertzen ez dituen gaietan sartu dira Eliza Katolikoaren goi-organuak?**

Ulertu beharbada bai, baina bizi ez di-

tuen gaietan, bai, sarri.

Abortuarenean, adibidez?

Abortuarena hor daukagu. Hiltzea gaizki dago, bai, baina beste bati agintzea bere gorputzarekin zer egin behar duen hori gure egitekoa al da? Erlijioa ez baldin badator bizitzarekin bat alferrik da. Erlijioa zerbitutarako bada behintzat da bizitzari argia, indarra, emateko. Bizitzari zentzua ematea da sinistea.

◆ Eliza 2000koen arrastokoa zara?.

Bai, hor ibiltzen gara. Errezatu bai, baina sinisduna dena ezin da errezura mugatu. Bilatu behar du denen ona. Denekiko errespetuan bizitzea. Injustiziak amaitzeko argia egin behar du. Abade izatea ez da mundutik ihes egitea.

◆ Saltsa askotan ibilia zara Mendaron. Kultur munduan, besteak beste.

Etorri nintzenez eta geroago ere, ez zegoen hemen lana ez zen beste kulturarik, eta horrexegatik sortu genuen Guruzpe elkarte ere, konturatu ginelako behar genuela beste zerbaite. Esango nuke Guruzpe sortu zenean mugarririk ez zela.

◆ Zein izan zen zure egitekoa hor?

Taldeko bat nintzen. Udalik ez zegoenez, ikusi genuen behar genuela zerbaite, bilgune batedo, gure beharrei erantzuteko, edo besterik gabe, jaiak eta abarrak

antolatzeko. Elkarte bat zen Guruzpe, baina Udak txiki baten egitekoa betetzen zuen. Nik esango nuke gauza on askoren hazia erein zela han, esate baterako ikastolarena. Herri izaera sustatzen ere lagundu zuen Guruzpek. Egon zen garai bat irakaskuntza herri handietan zentralizatu nahi izan zutena, eta Mendaron ere umeak gutxitu zirena. Eta pentsatu genuen ezin zela hori egiten laga, umerik gabeko herria etorkizun gabeko herria delako. Eta halaxe egin genuen gure apustua. Ekarrigenituen ikastolen mugimenduan zebiltzanak Mendarora nola egin azaltzeko, eta egin genuen gure 'entsegua'.

◆ Guruzpe izan ez balitz, Mendaro herria al litzateke gaur?

Ziurrenik ez. Guruzperen babesean eman zitzaion bultzada prozesuari.

◆ Mendaron lortu den gauza handiena zein da urte hauetan?

Herri egitea. Zatituta gintuzten lehen, baina herri-sentimendua beti egon da hemen. Lorpenik handiena, beraz, horixe, baina Guruzpe existitu ez balitz, nekez lortuko zen hori, eta beraz, beharbada, Guruzpe elkarte izan da mendarorrek herrirako lortu zuten gauzarik handiena.

◆ Zer eman diozu Mendarori eta zer jaso duzu?

Nik neuk neukana, eta Mendarok niri

maitasun handia. Nik ez daukat Mendaro lagatzeko! Maite dut Mendaro eta oso eskertuta nago mendarorrei.

◆ Mila saltsatan ibilitakoa zara herrian, diktadurako garai zailenetan ere bai.

Behin etorri zitzaidan aspaldi hil zen gizon bat abade abertzalea ote nintzen galdezka, esana ziotela isilean jende jakin batekin bildu nintzela-eta. Frankismoa zen, gauzarik normalena ere ezkutu egin behar izaten zen garaia. Tentsio une batzuk bizitzea tokatu zitzaidan neuri ere, baina ez horrenbeste. Tarteka etortzen ziren sindikatu mugimendutakoak-eta korreo lanak egingo ote nitzien galdezka. Ostatu eske ere etorri izan ziren. Behin etorri zitzaizkidan langile itxurako bi mutil gaur non pasatu ez zutela esanez. Sekula ez dut jakin zer ziren haiek, baina ez nien aterpea ukatu. Abertzale hitzak hemen beste inon baino karga handiagoa izan du beti. Abertzale izatea zer da, baina? Norberarena defenditzea? Madrilgo batek ez du berea defenditzen?

◆ Arriskurik ez zenuen sentitu?

Beldurrik ez. Elizara beti etortzen da jendea eskean eta ondo egitea da gure lana. Harrapatu izan banindute kartzelara eramango ninduten neu ere seguru-seguru, dena zegoelako orduan debekatuta, baina ustez ez genuen guk txarrik egin.

Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 607 963 628
www.fisio-mas.com

RPS 173/18

Garazi Sampedro Arando
RPS 169/15

ERROSARIO
HAGIN KLINIKA

Ercencia, 7
Elgoibar
943 743 679

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Eskertuko genuke Santu Guztien Egunerako hilerria txukuntzea: "Aspalditik dauka hilerriak txukuntzeko beharra. Nitxo asko ez daude batera zainduta. Puskatuta eta zikin daude. Santu guztien eguna izango da datorrela zaroaren 1ean, eta uste dugu egun horretarako dena txukun eta dotore jarri beharko litzatekeela".



Eskelak jartzeko kristalezko bitrinak behar dira: "Elgoibarren zehaztuta daude eskelentzako guneak, baina iruditzen zaigu horman bertan jarri ordez, txukunago geratuko liratekeela kristalezko bitrina batean sartuta. Euria egiten duenean eskelak busti egiten dira, eta behin baino gehiagotan eskelak lurrian ere ikusi izan ditugu. Beste herri batzuetan badaude bitrinak, eta Elgoibarren ere ez lirateke gaizki etorriko. Eskerrik asko".



Gasolindegirako sarrera arautu beharko lukete: "Mendarotik Elgoibarrera gatzela gasolindegira sartzea badago berez, errepidean marra etenak daudelako eta ez dagoelako inongo debekurik, baina batzuetan auto-ilarak sortzen dira autoren batek horra sartu nahi duelako eta modurik ez duelako, eta iruditzen zait metro gutxira biribilgunea edo errotonda egonda, balegokela zuzenean sartzea debekatzea. Trafikoa oztopatzea saihestuko litzateke, eta bide batez, arrisku egoera bat edo beste ere bai".



Urazanditik errepide nagusira irteteko arazoak daude: Pilarreko aparkalekutik errepide nagusira irtetea arriskutsua da. Auto txikia dutenek, beharbada, ez dute arazorik izango errepidera irteteko, baina furgoneta edo auto luzeagoa dugunok arazoak izaten ditugu kontrako norazkoan datozenen bidera sartu gabe irteteko. Derrigortasun hori kendu beharko lukete, eta zuzenean irten ezin dugunoi bidea eman Urazanditik barrena irteteko biribilgune berrira. Bide batez, Urazanditik errotondora irten aurreko errepide zatia oso egoera txarrean dago. Zulo handiak daude, eta eskertuko genuke horiek konpontzea".

Kalegoen plazan baloiarekin jokatzeari debekatu beharko lukete: "Urriaren 9an nire amaginarreba baloiarekin jo zuten Kalegoen plazan, eta ondorioz, lurrera erori eta kolpe handia hartu zuen. Aldaka eta sorbalda hautsi zituen. Emakumea bakarrik bizi zen, bere kabuz moldatzen zen, eta orain dena egin behar diogu. Umeek badituzte beste leku batzuk futbolekin jokatzeko, eta iruditzen zaigu Kalegoen plaza ez dela horretarako lekua. Neurriak hartu behar dira. Kalegoen plazan adineko jende asko ibiltzen da, eta horrelakoren bat gertatzen den arte ez gara gogoratzen".

Ludoteka eta Gaztelekua, aisiaz gozatzeko bi gune euskaldun

Udal ekipamenduak dira Ludoteka eta Gaztelekua, baina Elgoibarko Izarrak kudeatzen ditu. Orain dela bederatzita urte jarri zituzten martxan, eta ordutik dihardute aisialdiaz euskaraz gozatzeko lanetan. Haur eta nerabeen betebeharrak gabeko denbora, aisialdia, era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasuntsuan gozatzea da helburua, erabiltzaileen ongizatea eta garapen pertsonala eta soziala sustatzeko.

- AINHOA ANDONEGI -

Amaia Erkizia (ama)

Amaia: "Alabak, Norak, 5 urte zituenean ezagutu nuen nik Ludoteka. Gaur egun 11 urte ditu eta dagoeneko ez da etortzen, baina urte askoan etorri izan da Nora Ludotekara. Norarekin esperientzia oso ona izan genuenez, Unai ere apuntatu genuen. Eskolaz kanpoko aukeren artean oso interesgarria iruditzen zitzaidan Ludotekaren eskaintza. Betiko lagunez gain jende berria ezagutzeko, eta euskaraz jolasteko aukera oso ona da. Niretzako euskaraz jolastea oso garrantzitsua da. Kalean gaztelania asko entzuten da eta Ludotekan ahalegin berezia egiten dute euskaraz jolasteko. Unai ez da egunero etortzen, ingelesa ikastera eta futboleko jokatzera ere joaten delako, baina oso gustura etortzen da. Udan gutxiago etortzen gara, eguraldi onarekin

Unai Cornejo (semea)

kalean errazago geratzen garelako. Baina neguan sarri etortzen gara. Jolasten hazten dira, jolas pila bat ezagutzen dituzte, egunero ekintza desberdinak egiten dituzte eta askotan sukaldaritza tailerra edo eskulanak eta bestelakoak ere egiten dituzte. Horrez gain, irteerak, egunpasa... Eskaintza oso aberatsa da, eta hezitzaileak izugarriak dira. Umeekin primeran moldatzen dira, sekulako harreman ona daukate eta hori oso garrantzitsua da. Umea hemen lagata lasai geratzen naiz, badakit esku onetan uzten dudala".

Unai: "Ni pozik etortzen naiz. Bakarik etortzen naiz, eta lagun berriak egin ditut. Play mobil, wii, edo futboleko ere jokatzen dugu. Niri gehiena futboleko jolastea gustatzen zait. Hemengo irakas-



leak oso jatorrak dira, eta oso ondo pasatzen dut. 8 urte ditut, eta datorren urtean ere etorriko naiz. 5 urterekin hasi nintzen, eta momentuz jarraituko dut etortzen, baina niri futbola da gehien gustatzen zaidana".



Dune Hansen (12 urte)

Eneko Ansola (16 urte)

Dune Hansen aurten hasi da Gaztelekura joaten. DBH1 mailan dago, Institutuan, eta eskolako lagunekin joaten da Gaztelekura. "Giro ona dago, eta oso ondo pasatzen dugu", esan du. Gainera, Ikastolako jendea ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera eskaini dio Gaztelekuak, eta hori ere gustatu zaio. Ostiral, zapatu eta domeketan joaten dira. Ostiraletan "Barixakuko ekintza" izaten dute: bi taldeetan banatuta bata bestearen kontra aritzen dira, eta puntu gehien lortzen duenak irabazten du. "Lehiaketa polita izaten da". Horrez aparte, jokoak ere izaten di-

tuzte: "Wii-arekin ere jolasten dugu, eta ping-pong edo futbolin". Gaztelekuan sakelako telefonoa utzi eta lagun artean jolasten dute, eta hori gustatzen zaio: "Kalean askotan bakoitza bere telefonoarekin egoten gara, eta ez dugu gure artean hitz egiten. Gaztelekuan ez gara sakelakoarekin ibiltzen".

DBH1. Mailan hasi zen Eneko Gaztelekura joaten, eta oso ondo pasatzen duenez, aurten laugarren urtez joango da. Musika entzun, filmak ikusi eta hainbat jolasetan jarduten dira, baina bereziki, Gaztelekuak antolatzen dituen irteeretan parte hartzea gustatzen zaio Enekori: "laz Gasteizera joan ginen hiru egunetarako, eta oso ondo pasatu nuen". Ildo horretatik, proposamen bat ere badauka Gaztelekuko hezitzaileentzat: "Saloura-edo irteera bat antolatzea ondo egongo litzateke".

16 urte ditu, eta oraindik beste bi urtez izango luke Gaztelekura joateko aukera, baina koadrilako lagunekin lokala hartzeko ideia ere aztertzen ari dira. "Lokalean koadrilakoak bakarrik egongo ginateke, eta Gaztelekuan jende gehiago ezagutzen da". Asteburuetan jende gehiago joaten da Gaztelekura: "Mendaroko gazteak ere etortzen dira, eta gu ere batzuetan joaten gara hara. Jende berria ezagutzeko aukera ona da Gaztelekua".



Ekipamenduetako hezitzaileak.

Ekipamenduetako informazioa



	LUDETEKA	GAZTELEKUA
Adin tartea	5-12 urtekoak	13-18 urtekoak
Prezioa	45 euroko urteko kuota. Familia ugariak, %30eko deskontua. Gizarte Zerbitzuetako zenbait programen erabiltzaileak diren familiek %70eko deskontua Familia ez ugarien bigarren seme-alabak %30eko deskontua.	Doan
Hezitzaile kopurua	Hiru	Lau
Egutegia Orduetgia	Asteleheneetik ostiralera, 16:30 -19:30	Asteazkenetik igandera. Asteazken, ostegun eta igandetan: 17:00-20:00. Ostiral eta larunbatetan: 17:00-21:00 (aurten ordutegia luzatzeko apustua egin dute).
Eskaintza	Hileko programaketa (egunero ekintza zuzendu bat; sukaldaritza, eskulanak, non dago, ludo?, mahai jolasak, wii, psikomotrizitatea...) Hilean behin LH4-6koentzat ekintza berezia Oporraldietan Atxuxiamaikarekin eskaintza bateratua (HH2-LH6 bitarteko haurrentzat). Jostailu eta liburu mailegu zerbitzua Ludotekako Aste Nagusia Ludoteka ibiltaria Egutegiarekin lotutako ekintza bereziak (Santa Zezilia, inauteriak, Santa Ageda, haurren eskubideen eguna...) Familia irteerak.	Ostiraleroko Barixakuko Ekintza. Hilean behin, Gazte Gaba (2002tik aurrera jaiotakoentzat ordutegi berezia: 21:00-22:30). Hileko programaketa (sukalde txokoa, eskulana, mahai jolasa eta ekintza berezi bat) beraien batera osatzen da. Oporraldietan, eskaintza berezia(egutegi, ordutegi eta ekintza ezberdinak).



“Barre egingo dugu, eta konturatuko gara zenbat denbora galdu genuen”

▶ LOLI ASTOREKA ANTZEZLEA

Antzezlaren jatorrizko bertsioa taularatu eta hogeitaz urtera, emakumeen ikuspegitik estreinatu du Tanttaka Teatroak ‘El Florido Pensil’ obra, eta gaur, Elgoibarren eskainiko dute (20:30ean, Herriko Antzokian). Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues dira antzezlaren zuzendariak, eta Loli Astoreka, Gurutze Beitia, Teresa Calo, Elena Iurreta eta Itziar Lazkano ariko dira aktore lanetan. Gaztelaniazko bertsioa da Elgoibarren eskainiko dutena.

- AINARA ARGOTIA -



Loli Astoreka, ezkerretik hasita bigarrena.

♦ **Aurreko ikuskizunak zuen molde berari eutsi diozue: bost heldu batu zarete, haurtzaroa gogoratzeko, baina oraingoan, emakumeen egoera islatuko duzue. Zergatik da horren beharrezko emakumeen ikuspuntutik begiratzea sasoi hari?**

Mutilak eta neskatoak ezberdin hezten gintuztelako orduan. Diktadura garaian eskolan ere bereizita geunden. Emakumeok senarra edo gizonak zoriontsu izateko hezten gintuzten. Ezkondu, umeak egin eta hazi, eta etxeko lanak egitea zen gure lana. Hezkuntza sistema bera Francoren ideologia totalitaria umeengan sartzeko prestatuta zegoen, eta mutilek ere sufrizten zuten hori, jakina: dena buruz ikasi beharra izaten genuen ezer ulertu barik, ez genuen inolako azalpenik jasotzen, euskaraz egitea galarazten ziguten eta geure nortasuna ere galtzen genuen edo ahalegintzen ziren behintzat hori lortzen, eta han egoten ginen gu, umeak, ezer ulertu ezinda, zer esan ez genekiela sarri eta nor ginen ere jakin gabe batzuetan, edo

gutxienez, dudatan. Emakumea, gainera, azpiratua zegoen; gizonen baloreek balio handiagoa zuten eta menpeko eta otzanak izateko geunden gu. Garai hari barre egiteko obra da hau.

♦ **Beste garai bat zen, baina gaur egun zer garen gogoeta egiteko bidea ere ematen du hortaz.**

Bai. Gaur eguneratzen gaitu, bai. Gaur egun eskolan gure neska eta mutilek batera ikasten dute, baina obran zalan-tzan jartzen dugu guk nahi beste egin dugun aurrera.

♦ **Frankismoaren azken urteak bizi izan zenituen zuk ere. Alde horretatik eroso-ga arituko zara oholztan, ala?**

Azkeneko lorrinak, baina bai, bizi izan nuen eskola hura, bai: ditxosozko *Cara al sol* kantatu beharra, eskolara sartzeko ilaran jartzea, zigorrak euskaraz egiteagatik, ‘la letra con sangre entra’ eta halako kontuak... Zorionez, memoria halakoxea da eta ahaztu ere egin ditut gauza batzuk, baina bai, obra honek aukera eman dit dena gogorarazteko eta

bizi genuen krudelkeria hartaz barre egiteko. Niretzat opari bat izan da egia esan. Gizonen obra ikusi nuenean lilurata gelditu nintzen eta orduan ere esan nuen nik gustura egingo nukeela haren bertsioa, eta orain, deitu didatenean, zer esango dizut ba! Loteria izan da.

♦ **Eskola frankistaz barre egiteko eta memoria egiteko obra da beraz.**

Komedia da generoa, eta barre egiteko gaude. Terapia onena da. Geure barrua ere askatuko dugu, urte askoan erreprimetuta izan genuen barru hori, baina ikusten dutenei zer pentsatua ere emango die, batez ere garai hura ezagutu zutenei. ‘Zenbat denbora alferrik galdu genuen’ pentsatuko dute. Barre egingo dugu beraz, baina baita gogoeta egin ere umezaroan galdu-tako denbora denaz. Bizi izan ez duenarentzat, berriz, historia-eskola bat da antzezlana. Derrigorrean eta haserrepean hezi gintuzten gu, baina ume ere baginen eta umetako barrabaskeriak ere agertuko dira. Horixe genuen aurre egiteko bide bakarra.

50 herritarrek hartu dute parte 2017ko egutegia osatzeko argazki lehiaketan

Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan, 2017ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, inoiz baino arrakastatsua goa izan da aurtengo lehiaketa. Orotara, 50 herritarrek hartu dute parte, eta 270 argazki aurkeztu dituzte. Hauek izan dira saridunak: Julen Ansola, Maitane Huidobro, Oier Ramos, Gurutze Ariznabarreta, Eulogio Mancebo (2 argazki sarituak), Aitor Agirrezabala, Antonio O. Curbelo, Iñigo Etxaniz, Mikel Zengoitia, Mireia

Iriondo, Arkaitz Mujika eta Coro Fernandez. Argazki bakoitzagatik 70 euroko saria eskuratu dute. Marrazki lehiaketari dagokionean, Ikastolako eta Herri Eskolako LH5eko 136 umek hartu dute parte. Sari banaketa eta egutegiaren aurkezpena abenduaren 14an egingo dute, Kultur Etxean.



Arimen Gaua antolatu dute Mendaron

Mendaroko Gaztelekuak, Ludotekak eta Inleike taldeak Arimen Gaua antolatu dute gaurko. Arratsaldean eskulanak egingo dituzte, arimen gauerako mozorroak prestatzeko, eta gauean, berriz, beldurrezko film bat ikusiko dute San Agustin kulturgunean.

Zuberoako Ikastolen aldeko otarrak salgai

Zuberoako ikastolak laguntzeko jakiz betetako otarrak jarri dituzte salgai, eta Elgoibarren, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkartearen egin dezakezue eskaera, azaroaren 30a baino lehen. Bi otar daude aukeran: 40 eurokoa (Ahuzki) edo 52 eurokoa (Irati). Ardi-gazta, ahate-gibela, bizkotxo poltsa, ezti, euskal xerriki pate eta euskal xerriki odolkia ditu Ahuzki otarrak eta ardi-gazta, ahate-gibela, bizkotxo poltsa, ezti, euskal txerri lukainak eta txahal xehetua saltan Irati otarrak. Eskaerak egiteko: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi edo 943 741 626 telefonora deitu behar da.

Perretxikoen mundua gertutik ezagutu dute Elgoibarko 300 bat ikaslek



Jardunaldi Mikologikoak antolatu ditu Karakate elkarteak, eta ekintzen barruan, 5 eta 14 urte bitarteko ia 300 eskola ume pasa ziren astelehenean Kultur Etxeko sotoetik, perretxikoen mundua gertutik ezagutzera. Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleek jaso zituzten Inma eta Ignacio Mugerzaren azalpenak, eta euren zalantzak argitzeko aukera ere izan zuten. Aranzadi zientzia elkarteko adituek batu eta identifikatu dituzten perretxikoekin osatutako erakusketa ikusi ahal izan zuten sotoan.

Perretxikoen munduan gehiago sakondu nahi dutenek Karakate elkarteak eta Morkaiko mendi taldeak elkarlanean antolatu duten mendi irteeran izango dute horretarako aukera. Azaroaren 12an izango da irteera.

“Eskalada eta eskiari buruzko filmak eskainiko ditugu Elgoibarren”

▶ **JABIER BARAIAZARRA** BILBAO MENDI FILM FESTIBALEKO ZUZENDARIA

Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldien barruan, Bilbao Mendi Film Festibala Elgoibarrera ekarriko dute azaroaren 2an. Hiru film eskainiko dituzte, eta horietako bat iaizko festibalean saritutako film bat izango da. Bederatzigarren edizioa du aurten festibalak, eta urtetik urtera handitzen doa. Aurten 150 film aurkeztu dituzte festibalerako, eta horietatik 43 aukeratu dituzte antolatzaileek lehiaketarako. Jabier Baraiazarra festibaleko zuzendariaren hitzetan, “kantitatean eta kalitatean” handitzen ari da festibala.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **Abenduaren 9tik 18ra izango da aurtengo festibala. Zenbat film arituko dira lehiaketan?**

Aurten 150 film jaso ditugu, iaz baino dezente gehiago, eta horietatik 43 aukeratu ditugu lehiaketarako. Gainera, 39 estreinaldiak izango dira. Gurea urteko azken festibala dela kontuan hartuta, adierazgarria da ekoiztetxeek eta zuzendariak nola aukeratu duten gure festibala filmak estreinatzen. Eta kantitateaz gain, kalitatez ere askoz hobekiago dira. Mendi-aktibitatea goi mailakoa izan arren, zinematografikoki film asko ez dira kalitatezkoak izaten, baina azken hiru urteotan hobekuntza handia nabaritu dugu.

♦ **Filmak gero eta profesionalagoak dira, hortaz.**

Bai. Azken lau urteotan festibalak leku garrantzitsua hartu du nazioartean, eta herrialde anglosaxoietatik produkzio oso onak iritsi zaizkigu. Baina bereziki nabarmendu nahi nuke festibalaren gaia oso zabala dela eta horrek ere asko errazten duela parte hartzea. Mendia eszenatoki zabal bezala hartzen dugu, eta ez gara alpinismoan edo eskian soilik zentratzen. Gai interesgarriak eta film benetan onak jaso ditugu.

♦ **Nazioartea aipatu duzula, iruditzen zaizu festibalak laguntzen duela euskaldunok mendiarekin daukagun harremana ezagutzera emateko?**

Horixe da gure helburu nagusienetakoa: Euskal Herriko kultura ezagutzera ematea. Atzerrian oso ezaguna da euskaldunok naturarekiko eta mendiarekiko daukagun harremana, eta gainera, asko baloratzen dute. Gure kultura eta mendiarekin lotura duten film euskaldunok nazioartean zabaltzeko lan handia egiten ari da Bilbao Mendi Film Festibala. Guk parte hartzen dugun festibal guztietan ematen dugu gure hizkuntzaren eta kulturaren berri.

♦ **Uste duzu euskaldunok mendiarekin dugun harreman hori izan daitekeela festibalaren arrakastaren oinarria?**

Arazoi handienetakoa bai, dudarik gabe. Urte askoan izan ginen Euskal Herrian mendiko film festibalik gabe, eta mendizaleok horren falta sumatzen genuen. 70eko hamarkadan sortu zen mendi film festibala estreinakoz Donostian, eta zazpi urteren on-



doren desagertu egin zen. Orain dela bederatzigarren urte sortu genuen haren ildotik festibala Gasteizen, eta azken bost urteotan Bilbon antolatzen dugu.

♦ **Azaroaren 2an Elgoibarrera etorriko zarete. Zer eskainiko duzue?**

Morkaikoren eta Eñaut Izagirrearen laguntzarekin antolatu dugu Elgoibarko emanaldia, eta oso interesgarria izango da. Hiru laburmetraia eskainiko ditugu: Lehenengoa, *Big men*, Pou anaiak protagonista dituen filma. Kirol eskalada izango da gaia, baina sormenarekin lotuta. Jordi Canyigueral zuzendari kataluniarrak eskalatzerakoan eskuek horman egiten duten lana eta Tarragonako eskultore baten lanak parekatu ditu. Oso film interesgarria. Bigarrena *Eclipse* film kanaditarra izango da. Ilargi eklipse baten argazkia lortzeko Artikora eginitako bidaia kontatzen du filmak. Argazkigintza, kirola eta mendia uztartzen dituen film zoragarria da. Eta azkena, *A line across the sky*. Film honek eskalada film onenaren saria lortu zuen iaz Bilboko festibalean. Orain dela bi urte Patagoniako Fitz Roy mendira espedizioa egin zuten Alex Honnold eta Tommy Caldwell-ek eta ekintza horregatik urrezko pioleta jaso zuten. Jarduera oso ona eta umorea uztartzen dira. Programazio oso ona prestatu dugu Elgoibarrerako. Negua gertatzen dagoen honetan, eskalada eta eskiari buruzko filmak eskainiko ditugu, eta Bilboko festibalari begira, motorrak berotzen joateko parada ezin hobea izango da.

Iban Muruak irabazi du lasterketa bertikalen Euskal Herriko Kopa

Iban Muruak erakustaldia eman du 2016ko Kilometro Bertikalen Kopan. Kopa osatzen duten bost probetatik hiru irabazi ditu Lizarpe taldeko antxitxikari elgoibartarrak: Zegamakoa, Azpeitikoa eta azkena joan den domekan, Araia-Aratz kilometro bertikala, Arabako Asparrena herrian. Hain zuzen ere, azken sailkapenean hiru emaitzarik onenak hartzen dira kontuan. Muruak honenbestez, lortu daitekeen puntuazio onena lortu du, 600 puntu -200 puntu garaipen bakoitzeko-. Emakumeei dagokionez, Abadiñoko Oihana Azkorbebeitiak irabazi zuen Araia-Aratz kilometro bertikala eta garaipen honekin Kilometro Bertikalen Kopako lehen postua lortu du azken sailkapenean, azken proba jokatu aurretik lidergoan zegoen Ainhoa Lendinez elgoibartarrari aurrea hartuta.



Egoitz Mora judokak bigarren egin du Espainiako Kopako proba batean, Iruñean

Egoitz Mora judoka elgoibartarrak zilarrezko domina lortu zuen Iruñean jokatu zen Espainiako Kopako proba puntuagarrian, San Fermin torneoan. 100 kiloz azpiko kategorian lehiatu zen Mora eta Sergio Trillo galizarraren aurka jokatu zuen finala, Samuel Ortega eta Luis Alvarez madrildarrak gainditu eta gero. (Argazkian ezkerrean).



Pala misto txapelketako finala jokatuko dute gaur

Sekula baino bikote gehiagok hartu dute parte aurten Elgoibarko III. Pala Misto Txapelketan. Guztira 24 bikote aritu dira lehian, irailaren 21ean hasi zen txapelketan, Kalegoen plazako frontoian. Eguaztenean jokatu zituzten finalerdiak eta gaur jokatuko dituzte finalak, 19:00etan hasita. Nerea Irustak eta Kepa Arrizabalagak osatutako bikoteak Leire Etxanizek eta Iker Oñederrak osatutakoaren aurka jokatuko du finala.



Emaitzak

FUTBOLA

Hondarribia 2 – Haundi 2 (Oho. erreg.)
Elgoibar 1 – Ikasberri 0 (1. erreg.)
Elgoibar 2 – Mondragon 2 (Oho. jub.)
Ikasberri B 2 – Elgoibar 2 (Jub. 1. maila.)
Lagun Onak 2 – Elgoibar 0 (Oho. kad.)
Elgoibar 12 – Eibartarrak B 0 (Inf. 1. maila)
Zarautz 7 – Elgoibar 0 (Alebinak 2005)

PALA TXAPELKETA MISTOA

Upe Gonzalez/Mikel Lopez 20 – Nerea Irusta/Kepa Arrizabalaga 22 (finalerdia)
Lara Urain/Julen Salaberria 12 – Leire Etxaniz/Iker Oñederra 22 (finalerdia)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Graccurreis 1 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Alcorta F.G. 27 – Trapagaran 40 (Senior gi.)
Lauko Elg. 28 – Aloña Mendi 18 (Senior. emak.)
Egia 29 – Salento 23 (Senior gizezkoak)
Errotabarri 24 – Tecnifuelle 23 (Jub. nesk.)
Beristain 34 – Errenteria 23 (Jub. mut.)
Errotabarri 24 – C. Astigarraga 29 (Kad. nesk.)
Zarautz 29 – Deca Elg. 39 (Kad. mut.)
Ordizia 9 – Dario Elg. 35 (Kad. nesk.)
Cometel 20 – Egia 23 (Kad. nesk.)
Leizaran 30 – Bankoa Elg. 22 (Kad. mut.)
Urkunde 36 – Errenteria 25 (Kad. mut.)
Orio 17 – Pneumax 14 (Inf. nesk.)
Modeltek Elg. 36 – Ereintza 14 (Inf. nesk.)
Bacalaos Alcorta 13 – Pulpo 30 (Inf. nesk.)
Arrasate 10 – Txariduna 43 (Inf. mut.)
Murgil 29 – Aloña 4 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 29
11:00 Elgoibar – Zumaia (Inf. Txiki)
17:00 Haundi – Ordizia (Oho. Erreg.)
Domeka, 30
16:30 Elgoibar – Burumendi (Jub. 1. maila)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 29
10:00 Txariduna – Ereintza A (Inf. mut.)
11:15 Bankoa Elg. – Hondarribia (Kadete mut.)
12:45 Salento – Urnieta (Senior giz.)
17:30 Dario – Bera Bera (Kadete nesk.)
19:00 Deca Elg. – Saiako (Jub. mut.)
Domeka, 30
10:00 Bacalaos Alcorta – Ajala B (Inf. nesk.)
11:15 Astigarraga – Usurbil (Kad. nesk.)
12:45 Tecnifuelle – Usurbil (Jub. nesk.)

PALA MISTO TXAPELKETAKO FINALA (Kalegoen plazan)

Barixakua, 28
19:00 Nerea Irusta/Kepa Arrizabalaga – Leire Etxaniz/Iker Oñederra (Kad.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 647 100 572

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 185 896

Etxeak edo portalak garbituko nituzke. Elgoibartarra eta euskalduna naiz.
☎ 649 782 967

Orduka lan egiteko prest nago.
☎ 602 047 812

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 638 338 816

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua.
☎ 667 625 233

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo asteburuetan. Esperientziarekin eta geriatriako ikastaroak eginda.
☎ 602 393 678

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 602 473 663

Lurrak lixatu eta barnizatzen ditut. Tarima flotantea ere jartzen dut.
☎ 632 253 315

Adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan.
☎ 646 821 678

Adinekoak zaintzeko edo baserrietan lan egiteko prest. Interno edo orduka.

Erreferentzia onak. ☎ 686 077 316

Lanerako prest nago. Adinekoak zaintzen, etxeak eta lokalak garbitzen...
☎ 655 094 780

Ingelesez hitz egiten ikasi duzu irakasle natibo batekin?
☎ 943 740 225 (Francesca)

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Larunbat eta igandetan.
☎ 642 381 844

Adinekoak orduka zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 506 763

Pertsona arduratsua adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 602 876 692

Geriatria laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. ☎ 646 931 162

Adinekoak zaindu edo portalak garbitzeko prest nago. ☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 660 290 237

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. ☎ 631 931 030

Adinekoak zaindu, zerbitzari lanak edo garbiketarako egiteko prest nago. Edozein lan hartuko nuke.
☎ 637 074 529

Ingeles eskolak ematen dira, banaka edo talde txikietan, etxez-etxe. Ingeles tituludun irakaslea.
☎ 680 319 002 / 943 744 062

Adinekoak edo gaixoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan.
☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka. Formazioa eta esperientzia handia ditut.
☎ 671 989 434

Adinekoak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Goizez, orduka.
☎ 647 100 572

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Formazioa eta diplomak dauzkat.
☎ 671 989 434

Portalak eta elkarteak garbitzeko prest nago. ☎ 617 571 210

Eskaintzak

Malape tabernarako zerbitzaria behar da. CV tabernan bertan utzi.

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa euskalduna eta 20-35 urte bitartekoa izatea. Bidali cv: dendacv@hotmail.com

Artezte makinetan esperientziadun ofiziala behar da. Makina prestatzeko ohiturakin. Pieza unitarioak. Lanpostu egonkorra. Bidali CV helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar, edo rectificadorexteriores@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 252 750

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia.
☎ 689 781 069

Bi logelako etxebizitza alokairuan hartuko nuke. ☎ 631 098 995

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 252 750

Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 655 711 200

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

GARAJEAK.....
Garaje itxia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. ☎ 648 012 181

BESTELAKOAK.....
Mutrikuko Arnope elkartearen bazkide bila dabil. Frontoia dauka.
☎ 630 164 895

Patinetea galdu dut, Micro markakoa, morea. Maala eta Santa Ana kale artean. ☎ 676 662 017



Txakur batentzako gordeleku behar dugu. Ahal bada argi naturala sartzen den leku bat. Hilean 100 euro ordaintzeko prest. ☎ 695 751 985

Karakate mikologia elkartearen nire bazkideza partea traspasatzeko prest nago.
☎ 688 605 253



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitateko bizilagun batek bere alde du dirua komunitateko kontuan. Duela bi urteko batzarrean bizilagunok erabaki genuen nork bere parte-hartze kuotaren arabera diru-kopuru bat sartzea hileroko komunitateko kontu korrontean, diru bat erabilgarri izate aldera. Ikusirik, baina, kontu horretan aldeko saldoa duela, aipatutako bizilagun horrek hileroko kuota ez ordaintzea erabaki du, harik eta saldo hori besteenarekin parekatu arte. Eta presidentek batzar bat antolatu du gai hau aztertzeko. Ohiko kuota batzuk ordaindu gabe dituen bizilagun hori zordun gisa hartu genezake denona den kontu korrontean saldo positiboa izan arren?

Legeak ez du derrigortzen komunitatea bizilagun horri dirua itzultzera. Kontuan dagoen dirua etorkizunean egin beharko diren gauzetarako da eta bizilagun bati dirua itzultzea edo hor dagoen dirua jabekideen artean banatzea batzarrean erabaki beharko da.

AHOLKUA: kontuan hartu behar da kontu komun horretan dirua sartzen den unetik dirua jabekide guztiena dela eta diru horrekin zer egin erabakitzea batzarrari dagokiola, jabekideen elkargoari, alegia. Diru hori oraindik erabili gabe egoteak ez du esan nahi etorkizunean erabiliko ez denik.

ROSALBA M^a PINTADO: *Etaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*





ZORIONAK



Zorionak, **Elia-txo**, 5 urte neska handi! Muxu potolo bat aiatxo eta amatxoaren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Jakes**, astelehenean 9 urte! Muxu handi bat familiako partez, eta bereziki Elene, Markel eta Jonen partez.



Zorionak, **Unai**, igandean 5 urte betetzen dituzulako, aiatxo, amatxo eta bereziki Asierren partez.



Zorionak, **Ibon** zure bosgarren urtebetetzean. Etkeko guztion partez, muxu handi bat.



Maule, potxola, zorionak eta segi hola.



Felix Etxeberria Parapanek 90 urte bete ditu. Ez dira gutxi eta eutsi zure kemenari! Zorionak. Urte on bat opa dizugu etxekook.



Zorionak, **Janine** zure hamairka garren urtebetetzean. Asteburuan ondo pasako duzula koan... *hakuna-matata!*




Zorionak, **pitin!** Segi olatu artean murgiltzen eta zure ametsak betetzen. Asko maite zaitugu. Pa.



Zorionak nire bizitzako **gizon-txoari**. Muxu handi bat, guztion partez.



Zorionak, **Nerea**, igandean 11 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki Mike-len partez.



Zorionak, **Intza** eta **Beñat** zuen hamargarren urtebetetzean. Ea zer prestatzen diguzuen igandean. Patxo handi bat etkeko guztion partez.



Zorionak, **Galder**, astelehenean 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako partez.



Zorionak, **Luken** eta **Izai**. Hurrengo azaroaren 2an eta 7an 6 urte beteko dituzulako. Mila muxu familia guztien partez.

Azaroaren 1eko jai-zubia dela-eta, datorren barixakuan ez dugu Barren kaleratuko, arazoak 11n baizik. Argazkiak, azaroak 9, eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barrenko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hiukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dentista
Auzoak erabaki ostoratuak:
8:00-22:00
Egutaria:
10:00-14:00

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziala egin hobek. GALDETU

IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com



**PANTAILA
AUREAN
BEGIAK
NEKATZEN
ZAIZKIZU?**

Zatoz eta zure ikusmenaren neke digitala neurtuko dugu egokitzen zaion tratamendua gomendatuz!

28 BARIXAKUA

17:00 Arimen Gaua. Mendaroko Herriko Enparantzan. Eskulanak eta mozo-roak egingo dituzte. Mendaroko gaztelekuak, ludotekak eta Inleiek antolatuta.

19:00 Pala misto txapelketako finala. Kalegoen plazan.

20:30 Antzerkia: 'El florido pensil, niñas'. Tanttaka produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

22:30 Beldurrezko filmak, San Agustin kulturgunean. Mendaroko gaztelekuak, ludotekak eta Inleiek antolatuta.

29 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta.

11:00 Kalamua elkarteak pintxoak salduko ditu, Kalebarren plazako txosnan.

12:00 Kale Kantariak eta talo tailerra. **Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

2 EGUAZTENA

18:00 Bilerak. Edoskitze eta hazkuntza taldearen bilera. Kultur Etxean.

21:00 Morkaikoren Udazkeneko

Mendi Emanaldia. Bilbao Mendi Film Festibal jaialdiko hiru laburmetraia eskainiko dituzte. Herriko Antzokian.

4 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea, Elgoibarko Izarra.

21:30 Bideo Forum. *Dogville* filma. Haizeak antolatuta, Loredi Salegirekin, Kultur Etxean.

8 MARTITZENA

19:00 Hitzaldia. *Los latidos del agua*. Hizlaria: Inma Mugerza. Haizeak antolatuta, Kultur Etxean.

9 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia. Sexualitateari buruz solasean. Gurasoentzako formakuntza. Kalamua guraso elkarteak eta Ongizate Sailak antolatuta, Kultur Etxean.

10 EGUENA

19:30 Morkaikoren Udazkeneko Mendi Emanaldia. *Iban 2-dean* mendi desafioko filma. Herriko Antzokian.

Zinea

'Tarde para la ira'
(Herriko Antzokian)

29 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)
30 domeka, 19:00
31 astelehena, 21:30

'Martyrs'
(Gaztetxean, suteigixan)
28 barixakua, 21:30

'Peter y el dragón'
(Herriko Antzokian)
30 domeka, 16:30

'Un monstruo viene a verme'
(Herriko Antzokian)

4 barixakua, 21:30
5 zapatua, 19:00 / 22:15
6 domeka, 19:00
7 astelehena, 21:30

'Sparrows'
(Ongarri. Herriko Antzokian)
3 eguena, 21:30

'El porvenir'
(Ongarri. Herriko Antzokian)
10 eguena, 21:30



Flexiahorro
% 0,55

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du. akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau operatuko dizugu: Tuppenware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

CA **bankoa**
CRÉDIT AGRICOLE

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

28 Barixakua BARRENETXEA
29 Zapatua IBAÑEZ
Goizez, BARRENETXEA
30 Domeka IBAÑEZ
31 Astelehena GARITAONANDIA
1 Martitzena ETXEBERRIA
2 Eguaztena FERNANDEZ
3 Eguena YUDEGO
4 Barixakua ORUESAGASTI
5 Zapatua BARRENETXEA

6 Domeka BARRENETXEA
7 Astelehena IBAÑEZ
8 Martitzena GARITAONANDIA
9 Eguaztena ETXEBERRIA
10 Eguena FERNANDEZ
11 Eguena YUDEGO

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Inoiz ere ezin diren zerbitzuak eskaintzen ditugu.
Dena ordue hartzeko.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Mari Carmen Agirre Egaña

Ahizpa

2016ko urriaren 18an hil zen, 101 urte zituela.

**Maite ditut gailurrak argiak ez beste...
Ai, hegazia banintz gainik-gain nabilke!**



I. URTEURRENA

Jose Garayalde Etxezarreta

2015eko urriaren 26an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, urriak 29,
19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**Zu gabe bizitzen ikasi behar izan dugu,
baina zure hutsunea izugarri nabari da.**

Asko maite zaitugu.

Besarkada bero amaigabe bat.

Zure familia






FOTOIOSU*



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Muneta, Karakate. Ez nekien, aitor dut. Kortazar ere esaten omen zaio. Udazken koloretan, negu zuritan, udaberriko loretan eta udako eguzkitan. Igotzen naizen aldiro pentsatzen dut: "Karakatetik mundua ikus daiteke". Euskal Herriko Hiru Handiak, Erlo, Arno eta urrunean Aralar. Itsasoa, zaldiak eta ardiak. Gurutze eta antenak ere bai han-hemen, autobideak, eolikoak eta AHT, paisaia lausotzen. Gure herriaren historia ere irakur daiteke Karakatetik: tumuluak, Oizen eroritako hegazkinaren aztarnak, Mariren kobazuloa, Intxorta inguruko su-hotsak. Oraina ere ikus daiteke: Jose Gurrutxaga, irribarrez, oraino, Elgoibar inguruetan korrika. Indiako ozeanoan, frantziarrek behinola kolonizaturiko uharte urrun hartan jaso dut haren albistea. Reunion uhartean. Han nintzela. Han ere bai baitago mendirik. Mesfidati joan nintzen eta liluratuta itzuli. Marrazoei bidea ixten dien koral arrezifeak babestuta, ur gardenetan sartu dut gorputza. Era guztietako animalia-hotsak entzuten ziren oihan berde itxitik, haserretu eta bat-batean sua jaurretzen duen sumendi eta krater eremu beltz lehorrera behartu ditut begiak. Lan handia egin dute begiek Reunionen, naturaren dena ikusten. Zeru izarratuari begira, autoz 400 bihurgune gainditu ostean iritsi naiz Cilaosera: 5.000 laguneko herria, 1.200 metrotara, *Piton de Neiges-en* oinetan. Bertara iritsi ziren lehen bizidunek munduaren gorenean zirela uste omen zuten, eta mundutik babestuta. Ezinezko bideak ikusi ditut Reunionen, mendi batetik bestera igarotzeko. Lagun berriak egin ere bai, frantziarrak, italiarrak, marokoarrak eta *dodo* lagunak. Hara doa nire gogoia gaur, Muneta gainean. Ederra da leku ezezagunak ezagutzea, eta areago, etxera itzuli eta bertako edertasunaz gozatzea. 7.540 bat pauso egin ditut gaur gora iristeko. Gutxiago egingo ote ditut lau asteren buruan! laz ere mintzatu ginen Muneta gainean lagun batzuk: "Bai, loramen, zuk arrazoi: Karakatetik, mundua ikus daiteke."

'Igotzen naizen aldiro pentsatzen dut: Karakatetik mundua ikus daiteke'

Jose Gurrutxaga Ondarza

2016ko urriaren 23an hil zen, 95 urte zituela.

*Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen
goxoa ezerk ez du lausotuko.*

Etxekoak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Gurrutxaga Ondarza

2016ko urriaren 23an hil zen, 95 urte zituela.

*Bular, gihar
zango, oinetan
luma lirainak
gogo-soinetan
gazte heldua
zinen benetan
beti prestu laguntzeko
herriko premietan.*



Jose Gurrutxaga Ondarza

2016ko urriaren 23an hil zen, 95 urte zituela.

Zuk hain eskuzabalik emandakoa, gudan geratuko da.



C.D. Elgoibar

II. URTEURRENA

Jose Mari Agirregomezkorta Ibarluzea

2014ko urriaren 31n hil zen, 86 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 29,
19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



TXANKAKUA

ELGOIBAR 2016 AZAROA

2016/11/30ERA
ARTE BALIO DU

25€
EROSKETA
BONUA

50€

CADUCA EL
30/11/2016

25€
EROSKETA
BONUA


TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIK


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Elgoibar
Udala


TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIK


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Elgoibar
Udala

50€-KO EROSKETA 40€-REN TRUKE

Baldintzak:

- Baliagarria 2016/11/02tik 2016/11/30era arte.
- Elgoibarren errolatuta daudenentzat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan beharko da) edo errolatze bakoitzeko.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.
- Bonuak azaroaren 2tik 30era erosi ahal izango dira Rural Kutxan (bonuak agortu arte.)


TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIK



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Elgoibarko
Udala

elgoibar